

Zuk parte hartu, nik konfiantzan irabazi



HNIBBILO-REN APLIKAZIOA EUSKADIKO ANTOLATUTAKO KIROLEAN

Euskadiko kirol-erakundeetako arduradun agurgarriak,

Eusko Jaurlaritzako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Kirol Zuzendaritzek prozesu bat hasi berri dugu, eta, horren barruan, Euskadin antolatutako kirolean HNIBBILO legea ezartzeko datozen hilabeteetan garatu beharreko hainbat ekintza daude.

HNIBBILO (8/2021 Lege Organikoa) haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko legea da.

Kirolaren eta aisialdiaren esparruan helburu hauek ditu: adingabeen aurkako indarkeria-egoeretan prebentzioa, detekzio goiztiarra eta esku hartzea eta ingurune seguruak sortzea.

Europar adingabeekin egin berri den azterlan baten arabera, pertsonen arteko indarkeria-prebalentzia handia dago kirolaren esparruan. Azterlanetik ondorioztatzen da indarkeria-jarrera asko asimilatuta eta normalizatuta ditugula.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiak erantzukidetasunezko begirada bat landu nahi dugu kirolaren esparruan haurrak eta nerabeak babesteko ingurune seguruak eraikitzeko.

SARRERA-GIDA

Euskadin antolatutako kirolean HNIBBILOren aplikazioari buruzko sarrera-gidan legearen nondik norakoak, abiapuntu kontzeptualak, indarkeriaren normalizazioaren

adibideak, Euskadin antolatutako kirolerako helburuak eta helburu horiek lortzeko bidea aurkituko dituzu. [Esteka honetan](#) deskarga dezakezu gida.

PRESTAKUNTZAK

2023an bi online prestakuntza emango ditugu Kirol Eskolaren bitartez, Eusko Jaurlaritzako kirol-prestakuntzako eskola. Lehenengoa, sentsibilizazioari buruzkoa eta kirol-erakundeei zuzendua. Eta bigarrena, adingabeak babesteko protokoloari buruzkoa, erakunde bakoitzean adingabeak babesteko ordezkari izendatuko diren pertsonentzat. Informazio gehiago eta izena emateko aukera aurki dezakezue [esteka honetan](#). 2023an zehar hainbat deialdi egongo dira zabalik izena eman ahal izateko ([epeak hemen](#)).

Prestakuntza-prozesu hau derrigorrezkoa da Lege berria aplikatzeko. Baina ez ditugu gure adingabeak derrigortasunetik babestuko, baizik eta erantzunkidetasunetik eta kontzientzia hartzearen ondorioz.

PROTOKOLOA

Haurrak eta nerabeak babesteko protokoloa ere zuen eskura jartzen dugu, zuen datuekin bete eta zuen erakundeetan aplika dezazuen. Protokoloa [esteka honetan](#) deskarga dezakezue.

BARNE-ZABALKUNDERAKO

KANPAINA

Barne-zabalkunderako kanpaina bat sortu dugu, Euskadin antolatutako kirol-erakunde, profesionaleri eta adingabeak besteko ordezkariari zuzendua. Kanpainak hiru fase izango ditu eta kirol-erakunde bakoitzak ematen dion zabalkunde orok helburuak lortzen lagunduko du. Sare sozialetarako, karteletarako eta abarretarako arte grafikoetako materialak jaso nahi badituzu, zure euskarrietan zabaltzeko, mezu honi erantzun eta eskatu, mesedez.

Zuen guztion beharra dugu prozesu honetan, eta zuen eskura jartzen ditugun hainbat zerbitzu eta baliabide publikoren bidez lagunduko dizuegu:

- [Kirol Eskola](#)
Prestakuntza-prozesua
- [Zain](#)
Kirol-erakundeei laguntzea LOPIVI protokoloak abian jartzeko
- [Zure Taldekoak Gara](#)
Kirolean adingabeko indarkeria kasuak salatu edo aholkatzea
- [Zeuk Esan](#)
Adingabeei arreta emateko telefona

Gorputz- eta kirol-jarduera oso garrantzitsua da haurren eta nerabeen garapen egokirako. Gizarte gisa, ingurune seguruak eta babesa zor diegu, jarduera hori gauzatu ahal izateko. Lor dezagun denon artean.



Adeitasunez,

Gorka Iturriaga

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria

Ana Rosa López de Uralde

Arabako Foru Aldundiko Kirol zuzendaria

Carlos Sergio Atxotegi

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko aholkularia

Goizane Alvarez

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendaria